

## KONTROL MOZIOA

### Donostiako parkingetako Empark-eko langileen lan-baldintzei buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2022ko urtarrilaren 17an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Empark enpresak Donostiako bost aparkaleku publiko kudeatzen ditu gaur egun. 2021eko abenduaren 27an Empark-eko langileek agerraldi bat egin zuten, beren lan-baldintza kaskarrak eta enpresaren aldetik izandako jarrera salatzeke.

Empark enpresako 21 langile aritzen dira Udaltzatzen jabetzakoak diren Okendo, Bulebar, Kontxa, Atotxa eta Katalunia parking publikoetan. Langileek soldata baxuak, ordutegi aldakorak eta langile falta salatu dituzte. Soldatari dagokionez, astean 39 orduko lanaldia duten arren, laguntzailearen nominak ez direla hilean 1.400 euro gordinera iristen salatu dute, antzintasuna eta bestelako kontzeptu guztiak kontuan hartuta ere. Era berean adierazi dute enpresak ez dituela bajaran edo oporretan dauden langileak ordezkatzen eta, horregatik, batzuetan aparkalekuetan ez dela inor egoten bezeroei arreta emateko.

Empark-eko langileek denbora luzea daramate beren lan-baldintzak hobetzeko lanean. Ikasturte hasierarekin batera, enpresari dei egin zioten Gipuzkoako aparkaleku guztietarako enpresa hitzarmen bat negoziatzera. Gauzak horrela, azaroaren 30ean, enpresak lan-baldintzen funtsezko aldaketa-prozesu bati ekin zion eta prozesu hori abenduaren 17an amaitu zen, akordiorik gabe eta azken proposamena abenduaren 20an gauzatzea erabaki zuen. Enpresak berretsi zuen egungo akordioa bi urtez luzatuko zuela, baina soldatak eguneratu gabe. Hortaz, alderdi sozialak ados ez zegoela adierazi eta demanda bat jarri du enpresaren aurka.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Argi dago enpresa eta langileen artean gatazka bat dagoela eta honek parkingen zerbitzuaren kalitatean eragin zuzena duela.

Urtarrileko batzordeetan zinegotzi arduradunari azaldu genion hau guztia, eta Udal Gobernuak gatazka honetan bitartekari lanak egiteko aukera aipatu genion baita langileekin biltzeko aukera ere. Honek guztiak parkingen zerbitzu publikoaren kalitatean izan dezakeen eragina jakinda ere, zinegotzi arduradunak ez zuen inolako prestutasunik adierazi langileekin biltzeko, ez Udalarari dagokion gatazka batean parte hartzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari datozen egunetan parkingetako langileek egindako bilera eskaerari erantzuteko.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari bitartekari lanak egiteko Empark enpresaren eta langileen artean, parkingen zerbitzua hobetzeko eta pertsonen lanbaldintza egokiak bermatzeko, kalitatezko zerbitzu bat eskaini ahal izateko.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia